

# CVCEPHOTO

10th INTERNATIONAL MOUNTAIN PHOTO CONTEST

## DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN



Grietas - Carlos de Cos

# ARAUAK 2024



*X-Man - Yhabril Moro*



*De colores - Pablo Pérez Herrero*



*Black ice - Andreas Buslinger*

# CVCEPHOTO

*CVCEPHOTO Donostiako Club Vasco de Camping Elkartea mendi zale taldeak antolatzen duen nazioarteko mendi jarduera argazki lehiaketa da.*

## 1. PARTAIDEAK

Munduko edozein parteko argazkilari afi zionatuak nahiz profesionalak.

Parte hartzea dohainik da.

Parte hartzen duten adingabeok beren guraso edo tutoreen baimena dutela suposatzen dugu.

Sarituak badira, baimen hori eskatuko zaie.

## 2. GAIA

“**MENDI JARDUERA**”: Mendian egin daitekeen edozein kirol jarduera ez motori zaturekin lotura duten argazkiak. (Adibidez: Al pinismoa, eskalada, eskia, trekking, BTT, espeleologia, parapentea...)

## 3. LANAK

Parte hartzaile bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztu ditzake.

Lehiaketa honetara jada lehen aurkeztutako argazkiak ez dira onartuak izango.

Argazki kamera digitalekin ateratako argazkiak eta **RAW** artxiboa gordeta duten argazkiak onartzen dira soilik.

Partaideak aurkeztutako argazkien titularrak izan behar dira eta horien eskubide guztiak eduki behar dituzte.

**CVCEPHOTO**k ulertuko du argazkilariak argazkietan agertzen diren pertsonen baimena duela.

Autoreari legokioke irudi eskubideekin lotutako edozein erantzukizun edo erreklamazio.



*Seventh Serpernt - Krystle Wright*



*Don't wet yourself - Simon Carter*



*Golden Needle - Marcin Ciepielewski*

Ez dira onartzen digitalki manipulaturako edo aldatutako lanak.

Bakarrik onartzen da doikuntza orokor moderatuak egitea kontraste, kolore asetasun, argitasun, zurien balantze, tonu, itzal/iluminazio edo enfokeari dagokienez.

Onartzen da, baita ere, txuri beltzera bihurtzea, binetadura ezabatzea, partikulak garbitzea eta distortsioak zuzentzea. Irudi panoramikoak eta neurrizko errekor teak ere onartzen dira, baldin eta jatorrizko konposizioa aldatzen ez badute.

CVCEPHOTOk **RAW jatorrizko artxiboa** eskatuko die **AZKEN FASEra** iristen diren argazkien autoreei.

Zalantzak argitzeko behar izanez gero, lehiaketaren edozein fasetan eskatu dezake **RAW** artxiboa.

#### 4. AURKEZPENA

Lanak JPEG formatoan aurkeztu behar dira. Argazkia horizontala bada alde handiena 1600 pixelekoa izango da; bertikala bada, berriz, 1200 pixelekoa. RGB kolore espazioa bihurtu, profila txertatua.

Gehienezko pisua: 2 MB.

Lanak ezin dituzte markoak, ertzak edo argazki-oinak eduki. **IZEN EMATEKO FORMULARIOA**ren bitartez bidali daitezke bakarrik argazkiak.

**CVCEPHOTO** formularioan idatzitako helbidearen bitartez jarriko da harremanetan partaideekin.

#### 5. EGUTEGIA

- **IIZEN EMATEA**: 2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31era.

- **RAW ETA BEREIZMEN HANDIKO ARTXIBOEN ESKAERA**: 2024ko apirilaren 13tik aurrera.

- **FINALISTEI JAKINARAZTEA**: 2024ko maiatzaren 13an.

- **SARI BANAKETAREN EKITALDIA, ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA ETA AUKERATUTAKO LANAK WEB ORRIAN ARGITARATZEA**: 2024ko urriaren 19ean.

Lehiaketara aurkeztutako argazkien artean egindako hautapen batekin proiektio bat egingo da 2024ko urriaren 19ean, sari banaketaren aurretik.

## 6. SARIAK

1. Saria: **1400 euro + Iñigo Arístegui** artista ren garaikur eskusiboa.
  2. Saria: **700 euro.**
  3. Saria: **300 euro.**
- 17 Ohore aipamen: **DIPLOMA.**

“BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia Kartela” Saria: **700 euro eta BBK Mendi Film kartela.**  
“EITB Saria”: **700 euro.**

## 7. EPAIMAHAIA

Epaimahaikideak mendi arloko argazkilari entzutetsuak edo mendizale adituak izango dira.

Erabakia hartzeko argazkien konposizioa, teknika, hartzeko unea eta originaltasuna baloratuko dituzte, baita ere kirol jardueraren balioa.

Diru sari guztiek legeak dagokion reten zioak jasoko dituzte.

**CVCEPHOTO** finalistekin harremanetan jarriko da [info@CVCEPHOTO.com](mailto:info@CVCEPHOTO.com) helbidearen bitartez. Mesedez, zure agendan sartu posta helbide hau, segurtasun sistemak edo spam kontrakoak komunikazioa ez eragoz teko.

“**BBK Mendi Film kartela**” eta “**EITB Saria**”ren sariei dagokionez, helburu horretarako egokitasuna kontuan hartuko da. (Arau bereziak irakurri 9. atalean). Epaia apelaezina izango da eta ez dira erreklamazioak onartuko.

## 8. EGILE ESKUBIDEAK

Partaideek **CVCEPHOTO**ri baimena ematen diote aurkeztutako argazkiak erreproduzitzeko, dela erakusketak egiteko, dela katalogoa inprimitzeko, dela web orrian argitaratzeko nahiz, lehiaketaren zabalkunderako, egoki ikusten duen bestelako edozein bitartekoz argitaratzeko, denbora eta leku mugarik gabe, betiere autorearen izena aipatuta. BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaiaarekin eta EITBekin harremana dela eta, **CVCEPHOTO** nazioarteko ekitaldi horien barruan saritutako argazkiak eta egileak zabaltzen saiatuko da.

Hori dena eragotzi gabe, argazkien jabetza eta egile eskubideak autorearenak izaten jarraituko dute..

**CVCEPHOTO**k atzera botako ditu helburu komertziala duten argazkiak erabiltze ko eskakizun guztiak ala nola, salketak, mai leguak, etab.

Baita parte-hartzaileen datuak eskatuz gero.

Partaideek **CVCEPHOTO**ri emandako datu pertsonalak, Datu pertsonalak babeste ko abenduak 13ko, 15/1999 lege organikoa errespetatuz erabiliko dira. Sarrera, zuzenketa eta baliogabetzea lehiakideen eskubideak izango dira.



## 9. "BBK MENDI FILM BILBAO BIZAKAIA KARTELA" ETA "EITB" SARIEN ARAU BEREZIAK

**BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia**, CVCEPHOTO-ren kolaboratzaile, Bilbon ospatzen diren **INTERNATIONAL ALLIANCE FOR MOUNTAIN FILM**-aren barne dauden prestigio handiko mendi eta abentura zinemaldiak dira.

**CVCEPHOTO**ra aurkezten diren argazki guztiak izango dute sari hauek irabazteko aukera. Formatu horizontal edo bertikala onartzen duten argazkiak aukeratuko dira, babesleen logoak sartzeko lekua uzten dutenak esa nahia gehiegi aldatu gabe. Era berean, logo oso ikusgarriekin datozen elementu edo ekipamenduak dituzten argazkiak sahiestuko dira. Aldez aurretik publizitate kanpainetan parte hartu ez duten argazkiak bilatuko dira.

"BBK Mendi Film Poster 2024" saria irabazten dituzten argazkiak ezin izango dira publizitate kanpainetan erabili BBK MENDI FILM BILBAO BIZKAIAREN urrengo edizioa (2025ko abendua) aurreneko kasuan, ospatu arte.

Beste alderdietarako, **CVCEPHOTO**-ko oinarri orokorreko araudia ezartzen da, RAW eta bereizmen handiko JPG artxiboaren eskaera barne. Argazkiak festival bakoitzeko kartela izango dira, banderatxo, txartela, web orrialdea, etab... egingo dira baita ere, festivalak sustatzeko, betiere autorearen izena azaltzen dela.

Argazkiaren egileari dagozkio jabetza eta irudiaren eskubideak.

**EITB** Mediak (Euskal Irrati Telebista erakunde publikoak) EITB SARIA emango du Euskal Herrian egindako argazki onenari. Euskal Herrian (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Ipar Euskal Herria) egindako argazki guztiek hartuko dute parte, izena emateko inprimakian hala adierazten bada.

## 10. OINARRIEN ONARPENA

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak eta epaimahaiaren erabaki apelaezina onartzea dakar. Oinarrietan aurreikusi ez diren egoerak **CVCEPHOTO**k erabakiko ditu.

### ANTOLATZAILEA:



### LAGUNTZAILEAK:



TOPO®



*Huevos Grandes - Christian Pondella*